

Mugimendu nazionalisten aldarrikapena: autodeterminazioa eta erabakitzeko eskubidea Euskal Herrian eta Katalunian

Ander Vizán Amorós
Politologoa

Azken urteetan, Europako zenbait estatutik gabeko nazioek euren etorkizun juridiko-politiko-instituzionala erabakitzeko prozesu politikoak hasi edo aurrera eramane dituzte, autodeterminazio-eskubidea edota erabakitzeko eskubidea aldarrikatuz. Bigarren kontzeptu horrek maila akademikoan duen hutsunea betetzeko helburua du egindako ikerketak. Horretarako, sezesiorako bidean, Euskal Herriko eta Kataluniako mugimendu nazionalisten estrategiak autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapenetik erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenera aldatu —edo aldatzen ari— diren aztertuko dugu.

GAKO-HITZAK: Erabakitzeko eskubidea · Autodeterminazioa · Sezesioa · Plebiszitoa · Euskal Herria · Katalunia

The reivindication of nationalist movements: self-determination and right to decide in Basque Country and Catalonia

Lately, several European nations without state are set to or have already carried out political processes to decide their legal, political and institutional future, declaring their right for self-determination or their right to decide. The concept of the right to decide has walked nothing but a short distance at the academic level, and filling that intellectual vacuum is one of the goals of this research. That in mind, we will study the strategy of Basque and Catalan nationalist movements towards secession, demanding the right to decide rather than that of self-determination

KEY WORDS: Right to decide · Self-determination · Secession · Plebiscite · Basque Country · Catalonia.

1. Sarrera

Aldatu da edo aldatzen ari da mugimendu nazionalistaren sezesiorako estrategia autodeterminazio eskubidearen aldarrikapenetik erabakitze eskubidearen aldarrikapenera sezesiorako bidean? Paradigma-aldaketa hori eman bada edo ematen ari bada, zergatik? Galdera horri erantzuna ematea du xede artikulu honek. Horretarako, sezesiorako bideen azterketa eta eboluzioa ikusiko dugu. Tartean, bi kontzeptu nagusi agertzen dira: erabakitze eskubidea eta autodeterminazio-eskubidea. Horien definizio eta eboluzioan sakontzeko Euskal Herriko eta Kataluniako mugimendu nazionalisten jarraipena egingo dugu, une bakoitzean zein sezesiorako bide nagusitu den aztertuz, plebiszitatutako lehenengo Estatutuetatik Kataluniako Subiranotasun Aitorpenaren unera arte.

2. Sezesiorako bideak

Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren 1. artikulua honela dio: «All peoples have the right of self-determination. By virtue of that right they freely determine their political status and freely pursue their economic, social and cultural development». Nazioarteko zuzenbideak autodeterminazioa hainbat testutan kodifikatu du, baina dudarik gabe 1966ko New York-eko Nazioarteko Itunek agertzen digute autodeterminazio-eskubidearen positibaziorik garbiena (Urrutia *et al.*, 2012: 62).

Autodeterminazioak ez du zertan sezesiorako bidea izan soilik, estatus politikoa libreki determina dezake herriak. Beraz, sezesioa estatus posibleetako bat izan daiteke (Álvarez, 2006). Alta, sezesioaren kasuan zentratuko gara.

Horrela, Letamendiak (1997) dio Estatu taldeen independentziarako aukerak bolada edo olatu-kolpe gisara gertatu direla munduko sisteman botere-harremanen berrosaketak izan direnean. Une horiek gerrateei edo maila unibertsaleko oihartzuna duten erregimenen deskonposizioari jarraitzen diete (Letamendia, 1997). Are gehiago, sezesioak gerra-testuinguru batean gauzatzen dira, «salbuespenak gutxi eta ia denak eztabaidagarriak» izanda (Blas, 2015). Edo urrunago joanda, Fontana historialariak (2013) independentzia gerra batekin soilik lor daitekeela dio. Horrelako berrosaketa krisi edo gerra bat egon arte (hau da, sezesiorako aukera politikorako egitura apropos bat lortu arte), askapen nazionaleko mugimenduek egonkortasun edo erreforma-prozesu egoeretan autonomismoa bultzatzeko joera dute burujabetza-esparruak irabazteko (Sorens, 2012).

Gure testuingurura ekarriz, egun, European nabarmen indartsu izan diren mugimendu sezesionistak (Eskozia eta Katalunia, bereziki) krisialdi ekonomikoagatik indartu egin dira (2008tik gaur egun arte). Espainiako Estatuaren kasuan, horri birzentralizazioa gehitzen zaio: liberalizazio-prozesua «berzentralizazio-prozesu batekin laguntzen da autonomiak ekonomikoki bideragarriak ez direlako diskurtsoan oinarritua, eta erakundeen funtzionamendua hobetzeko bikoizketekin amaitu behar dela» (Letamendia, 2013: 156).

Legalki aztertuta, nazioarteko zuzenbideak autodeterminazioa errekonozitzen duen arren, «gaur egun sezesioa bereziki barne-zuzenbideari eragiten dion prozesu gisa ulertu behar dugu, nazioarteko zuzenbidearen “neutraltasunaren teoria” horren ondorio izanik» (Urrutia *et al.*, 2012: 67). Hortaz, «nazioarteko zuzenbideak ez du sezesioa debekatzen ezta sezesioa bultzatzen ere (salbuespenak salbu)» (*ibid.*): bortxaren debekua, negoziazio-prozeduraren irekiera eta prozedura demokratikoa (*ibid.*).

Prozedura horiekin bat, hainbat sezesiorako teoria aztertuko ditugu. Requejok (2015) eta Buchananek (in Álvarez, 2006) hiru teoria ezartzen dituzte sezesiorako (teoria konstituzionala eta tradizional liberala kenduta, zeinak sezesiorako aukera ukatzen duen kasu guztietan, Estatuia autodeterminazio eskubidearen subjektua izanik). Buchananek hauek ezartzen ditu: bidezko kausaren teoriak, teoria prozedimentalak eta hautaketa arrazionalaren teoriak. Requejok, bere aldetik: bidezko kausaren teoriak, teoria nazionalistak eta teoria plebisitarioa. Hortaz, ezberdintasun bat aurki dezakegu horien sailkapenen artean (hauek uztargarriak izanik), baina elkarren osagarri diren heinean hiru sezesiorako teoria azaldu beharrean, lau ko klasifikazio hau erabiliko dugu:

1. taula. Sezesioaren teoriak.

Teoriak	Sezesioaren legitimazioa	Jomugan dauden eskubideak	Autodeterminazio-eskubidea
Bidezko kausa	Bai, kasu batzuetan	Oinarrizko eskubide indibidual edo kolektiboen urraketa	Giza eskubideen urraketa kasuan, edo politika baztertzaileren aurrean (interes ekonomikoen aurka)
Teoria prozedimentala	Bai, prozedura legalari jarraituz	Eskubide indibidual eta kolektiboen positibazioa Konstituzioan	Eskubidea errekonozitu Estatuia kontsensuz batua dagoela erakusteko, Zuzenbide Estatuarekin hausturak ekiditeko
Teoria nazionalista	Bai	Nazio gutxituen eskubide indibidual eta kolektiboak	Kultura babesteko, justizia soziala lortzeko, akomodazio politikorako
Teoria plebisitarioa	Bai, baldintza territorialekin	Eskubide indibidualak	Autonomia indibiduala eta asoziazio boluntarioaren askatasuna hobetzeko

Iturria: lanketa propioa (Requejo, 2015 eta Buchanan, in Álvarez, 2006n oinarritua).

Taulan ikus ditzakegu: bidezko kausaren teoria, teoria prozedimentala, teoria nazionalista eta teoria plebisitarioa (Buchananen hautaketa arrazionalaren teoriarekin berdintzen dena, baina aurrerantzean teoria plebisitarioaren kontzeptua hobetsiko dugu):

- **Bidezko kausaren teoriak** azken baliabide gisa onartzen du sezesioa (*remedial secession*). Bakarrik da onargarria, baldin eta gizatalde batek injustiziak jasan baditu, hau da, baldin eta Estatuak politika opresibo bat ezarri badu gizatalde baten gainean (injustizia horiek egungoak ala iraganekoak

izan). Injustiziatzat har daitezke, bai giza eskubideen urraketak, bai lurralde jakin baten aurkako politika diskriminatzaileak.

- **Teoria prozedimentala**, batez ere Wayne Normanek garatu du, eta oinarritzat du «sezesioa demokraziaren ondorio da, edo demokraziarekin bateragarria da, baldin eta sezesorako arrazoizko prozedura bat ezar badezakegu ordena konstituzional justu eta demokratiko batean» (Norman, 2002: 90). Gainera, sezesio konstituzionalerako klausula batek irudikatuko luke «Estatua kontsentsuz dagoela batua, eta ez soilik indarragatik» (Norman, 2002: 95).
- **Teoria nazionalistak** nazioa du elementu zentral gisa, nazioa autodeterminazio-eskubidea duen subjektu politiko legitimo gisa ulertzen baitu. Sezesioa legitimatua dago, beraz, aurretik existitzen den unitate politiko batean.
- Azkenik, hautaketa arrazionalaren teoriak (Buchananen klasifikazioan) edo **teoria plebiszitarioak** Kanten etikaren kontzeptuaren inkorporazioa dakarte. Askatasunak pertsonak dualitate batean murgiltzen ditu: norbanako gisa eta kolektibitate bateko kide gisa. Norbanakoaren duintasuna eta identitate kolektiboaren errekonozimenduak nazionalismo estatalen monismo kultural eta nazionalaren apurketa dakar bere «demos demokratikoaren kontzepzioan (Requejo, 2002). Hau da, kolektiboaren askatasuna Kanten autonomia indibidual kontzeptuaren luzapena norbanakotik kolektibora besterik ez da, norbanakoa emantzipatzeko xedearekin. Autodeterminazioa, beraz, norbanakoaren askatasunaren gailurra litzateke.

Sezesioaren zilegitasuna, hortaz, prozesuaren demokratizazioan geratzen da. Autonomia indibiduala eta boluntarioki politikoki asoziatzeko aukeraren eskubidea dira gakoak. Horrekin, bada, norbanakoei eta kolektiboari lotuta agertzen da interesen agregazio gisa, eta subjektua kolektibo nazional edo etniko bat izan beharrean, norbanakoen multzoa, kolektiboa, da. Oinarria lurraldetutako egitura politiko baten talde bateko kideen lehentasun indibidualetan dago (Beran, 1984; Wellman, 2005).

2.1. Autodeterminazio-eskubidea eta erabakitze eskubidea

Autodeterminazioaren bitartez sezesioa lortu duten herrialdeak izan dira nagusi. 60ko hamarkadaz geroztik autodeterminazioak independentziarako bide eman die autogobernuri gabeko herrialde zein hirugarren estatuen menpe zeuden herriei. «Deskolonizazioa Nazio Batuen marko juridikoaren menpe gauzatzeko autodeterminazioa baliatu izan da» (Urrutia *et al.*, 2012: 62).

Testuinguru kolonialez gain, autodeterminazio-eskubideak agerpen argiak izan ditu ere, hala nola Bangladesh, gerra hotzaz geroko hainbat adibide: Alemaniako birbatuketa, Sobiet Batasunaren disoluzioa (bere baitako sezesio-prozesuak ahaztu gabe: Georgian, Moldavian, Azerbaijanen), Jugoslavia eta Txekoslovakiako zatiketak, Eritrearen sezesioa Etiopiatik... (Urrutia *et al.*, 2012: 63).

Nahiz eta autodeterminazio-eskubideak agerpena izan testuinguru kolonialetik at, «autodeterminazio-eskubidearen hedapena eta hura ezartzeko baldintzak eztabaidagarriak dira oraindik ere, iritzi kontrajarriak aurkitzen baititugu koloniez aparteko testuinguruetan eskubide baliagarria ote den baieztatzean» (Urrutia *et al.*, 2012: 66). Hala ere, autodeterminazioa sezesiorako bide bat da, baina ez bakarra; «autodeterminazio-eskubidea baliatu gabe ere sezesioa gauza daiteke, printzipio demokratikoa oinarritzat hartuz» (Urrutia *et al.*, 2012: 64).

Autodeterminazio-eskubidean oinarritu ez diren (eta ama-estatuarekin adostasunik gabe egindako) sezesio-kasuak ere egon dira; kasurik ezagunena, agian, Kosovorena da. «Kosovori sezesiorako titulua ez zaio autodeterminazioaren bidetik etorri, sezesio-egintza gauzatzeko baliatu den prozedura demokratikotik baizik» (Urrutia *et al.*, 2012: 66). Horrekin lotuta, garrantzitsua da Kanadako Auzitegi Gorenak botatako ebazpenetik atera daitekeen ondorioa: «Sezesio-egintzen legaltasunari dagokionez, nazioarteko zuzenbidearen jarrera zein den inportantea izan arren, hori bezain garrantzitsua da sezesio-egintzak gauzatean baliatzen den legitimitate demokratikoaren aurrean nazioartearen jarrera zein den (edo zein izango den) jakitea» (Urrutia *et al.*, 2012: 66).

Egun, printzipio demokratikoa oinarritzat hartzen duen eta sezesioa aukera zilegi gisa ikusten duen eskubidea aipatzeko «erabakitzeko eskubidea» kontzeptua dugu (teorien artean teoria plebisitarioarekin lotzen dena). Eztabaida teorikoan, autodeterminazio-eskubidearen bere harremanez aritzean, honako kontzeptualizazio hauek aurkitzen ditugu: «sezesioa erabakitzeko (edo ez) eskubidea» (Zubiaga, 2014); autodeterminazioaren «eboluzio estrategiko-diskurtsiboa» (Vilaregut, 2011: 190); eta badira autodeterminazio-eskubidetik bereizten dituztenak ere (bertan oinarria duela ukatu gabe), Jaime López, kasu; finean, kategoria politiko berri bat baita, «neologismoa» (López, 2011). Interpretazioen artean, ordea, elementu komuna dago: garrantzitsuena «prozesuaren legitimazio demokratikoa» da (Urrutia *et al.*, 2012: 58). Sakontze demokratikoa da garrantzitsuena («printzipio demokratiko batekin lotu egiten da eskusiboki [...] erradikalismo demokratikoaren printzipioan zentratzen da») (López, 2011), hots, autodeterminazioa diskurtso hegemonikoan txertatzea.

Finean, autodeterminazio-eskubidea eta erabakitzeko eskubidea ikuspegi ezberdinetatik egiten diren eskubide beraren irakurketak dira. Batetik, lehenengoak, ikuspegi primordialista du: «Halabeharrezko lotura egiten du norbanakoaren eta haren nazioaren artean. Norbanakoaren bizi-ikuspegia estuki lotua geratzen da iraganeko ezagutza nazionalera ez bakarrik iraganeko ulermenean, baizik eta gerorako basamentu epistemologiko eta aktitudinal gisa ere» (Moreno, 2008: 16). Erabakitzeko eskubideak, bestetik, ikuspegi pluralista du, «aniztasuna demokraziaren funtzio bitalak beteaz» (Moreno, 2008: 19).

2.2. Sistema politikoa, lurraldea eta sezesiorako bidea

Modu bikainean laburtzen du Julen Zabalok egunerokotasunean «lurraldetasunaren afera» edo «lurraldetasunaren korapiloa» deritzogun hori: «Gizakiek espazio bat hartzen dute propietzat bizitza garatzeko; banaketa hau, baina, ez da matematikoa ez iraunkorra, hori dela eta, gatazka iturri etengabea bihurtzen da» (Zabalo, 1996:13). Gizakiek beren bizitza garatzeko hartzen duten espazioa ez da iraunkorra eta gatazka-iturri etengabe bihurtzen da. Mugimendu nazionalistek lurralde jakin bat aldarrikatzen dute. Baina, sezesioa lortzeko bidea aldatzen den bezala, aldarrikatutako lurraldea (edo aldarrikatzearen beraren indarra) ere alda daiteke.

Lurraldeak «lurraren eta nazioaren esentziaren ideiaaren arteko sintesia ahalbidetzen du, taldearen batasunaren faktore nagusietakoa da, bere buruaren inguruan kontzientzia hartzea baimentzen diona beste taldeengandik ezberdinduz» (Burdeau, 1959: 15). Zentzu horretan, nazionalismoek asmo bateratzailea dute jendea sailkatzen baitute, batez ere, lurralde bateko partaide izanez edo ez (Nogué, 1991: 39). Estatuaren Teoriaren autore garrantzitsua hartuz, honako definizioa hau hartuko dugu gure analisirako: «Lurraldeak Estatuaren osagai nagusia ordezkatzeko du» (Jellinek, 2000). Definizio hori hartuko dugu lurraldearen garrantzia irudikatzen duelako, eta horrekin batera sezesiorako bideak (beraz, Estatu berrien sorrera) aztertuko ditugu.

Horrekin lotuta, autodeterminazioa berezko eskubide gisa definitzen da lurralde edo nazio baten lurraldearentzat; alta, erabakitzeko eskubidea autoeratu egiten den subjektu berria da. Eta autoeraketa hori nazio baten gainean proiektatu daiteke edo ez, baina bai beti borondate demokratiko baten gainean. Autoeraketarako ia ezinbesteko baldintza da lurraldea erakundetua egotea eskualde, probintzia, autonomia, estatu edo beste forma batekin (Blas, 2014; López, 2011; Zubiaga, 2014). Saidemanen (2007) esanetan, identitate territoriala bereziki garrantzitsua da mugimendu sezesionistentzat autodeterminazio-eskubidea aldarrikatu ahal izateko, euren lurraldea ama-estatutik bereizi ezin badaiteke, ezinezkoa izango zaielako eskubide horren aldarrikapen zilegia egitea nazioarteko politikan.

Are gehiago, teoria nazionalistak gidatua, aldarrikatzen den subjektua erakundetua ez badago, zaila da autodeterminazioa gauzatzea, baina printzipio demokratikoak gidatua sezesioa bultzatzea errazagoa izango da. Edo, erakundetutako demos ezberdinak izanik, errealitate politiko-administratiboa onartuz (*demos* edo *demoiak* bihurtuz) gehiengo demokratiko zabalak lortzea errazagoa dela esan daiteke (Vilaregut, 2011).

Estatu baten sorrerarako lurraldeak garrantzia berezia duela ikusi dugu: autoeraketarako ia elementu ezinbestekotzat hartuz. Horregatik, esan dezakegu ere sistema politikoak, eta bereziki instituzioek, paper berezia jokatzen dutela aztertuko ditugun gaiotan. Horrela, haratago joan gaitezke, eta esan, hein handi batean erakundetutako lurraldeek soilik lor dezaketela ama-estatutik sezesionatzea (Roeder, 2014), hau da, instituzio propioak dituzten lurraldeek soilik lor dezakete independentzia: Lehen Mundu Gerraren ostean parteko instituzioak («*segment states*») beharrezko baldintza (ez nahikoa) izan dira sezesioa gauzatzeko.

3. Euskal Herriko eta Kataluniako mugimendu nazionalisten eboluzioa

Kataluniako eta Euskal Herriko mugimendu nazionalistaren eboluzioa aztertzeko bi herrialdeetako mugimendu nazionalistaren parte gisa har daitezkeen aktoreen sezesio-biderako aldarrikapenak analizatuko ditugu. Kasuen analisia 1931tik 2013ra egingo da. 1931tik hasiko gara, lehenengo autonomia-estatutuak garai hartan sortu zirelako eta 2013ra arte egingo dugu, noiz autogobernu-ponentzia indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Katalunian, Subiranotasun Aitorpena egiten den. Epe zabal horretatik, diktadurapeko garaia kenduko dugu, demokrazia-garaiko sezesiorako bideak interesatzen baitzaizkigu.

Ikerketaren metodologiari dagokionez, ikerketa esplikatibo gisa planteatzen da hau. Erreminta metodologiko nagusitzat analisi konparatua dugu, Kataluniako eta Euskal Herriko kasuak aztergai izanda. Analisi konparatu hori gauzatzeko, dokumentuen analisia erabiliko dugu; tartean, autonomia-estatutuak, adierazpen instituzionalak, zein alderdiek eginiko proposamen eta dokumentuak aztertuaz. Kasuen inguruan bi zertzelada metodologiko egitea beharrezkoa dugu: Euskal Herriaz arituko garen arren, EAera mugatuko da gehienbat analisia (Nafarroa eta Iparraldeari aipuak etengabe izango ditugun arren, lurraldetasunaz aritzean horiek ere izango baititugu kontuan). Kataluniaren kasuan ere, *Principatera* mugatuko gara gehienbat, lurraldetasunaren aferan *Països Catalans*-i aipu egingo diogun arren.

Bi hipotesitatik abiatuko gara lan honetan: lehenengoa, *sistema politiko demokratikoa egonkortu ahala, erabakitzeko eskubidearen paradigma indartu egiten da sezesiorako bide bezala demokrazia liberaletan*. Ildo horretan, Lopezek (2011) argi adierazten du paradigma-aldaketa bat egon dela autodeterminazioaren aldarria erabakitzeko eskubidearen aldarriagatik aldatuz. Eta, bigarrena, *aldarrikatutako nazioaren parte batean edo parteetan sistema politiko demokratikoa egonkortu ahala, historikoki aldarrikatutako lurralde osoaren autodeterminazio-aldarria leunduz doa*; izan ere, sezesioa gauzatzeko, autore gehienak datoz bat, *demos* argi bat egon behar den teorian (López, 2011; Zubiaga, 2014; Requejo, 2015).

Sezesiorako bideen aldarrikapenak estatus politikoaren eztabaidak izan direnean aztertuko ditugu (agertoki demokratikoetan eta mugimendu nazionalistako alderdien jarreraren analisia), hortaz, bost une hauek aztertuko ditugu:

- Espainiako Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila.
- Trantsizioa eta estatutuen onarpena.
- Ekialdeko olatua.
- Autonomia-estatutuen berritzea.
- 2012ko hauteskundearen osteko estatusaren eztabaidak.

3.1. Espainiako Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila

1931 eta 1936 artean Euskadik bere errekonozimenduaren aldeko eztabaida politikoa bizi zuen. 1931n Eusko Alderdi Jeltzaleak (aurrerantzean EAJ) Eusko Ikaskuntzari Euskadiko Estatuko Estatutuaren aurreproiektuaren enkargua egin

zion, Lizarrako Estatutuaren oinarritzat erabiliko zena. Geroago, horren porrotaren ostean, konstituzioaren aurkakoa zela-eta, bai eta haren konfesionaltasunagatik ere, Aldundien Gestorari enkargua egin zioten Gorteek 1931ko abenduan. 1933an estatutu horren erreferenduma egin eta ez zen haren onarpena lortu ez zelako Araban botoen gehiengora heldu. 1934ko otsailean guztiz blokeatuta zegoen estatutuaren eztabaida, eta horrela jarraitu zuen bi urtez. Azkenik, Gerra Zibilaren atarian, estatutuaren onarpena lehenengo artean lehena zen, eta EAJ Frente Popularraren gobernua sartu zen estatutuaren tramitazioa azkartzeko asmotan (de la Granja, Landaberea; 2006). Estatutua onartzea hain zen beharrezko «Euskadiren jaiotza suposatzen zuelako errealitate juridiko-politiko gisa» (de la Granja, 2007:432).

Kataluniaren kasuan, autonomiaren aldeko borroka sutsua egin zuten alderdi katalanistek, Errepublikaren sorreratik. Esquerra Republicana de Catalunya (aurrerantzean ERC) Kataluniako hegemonia politikoa lortuta kasik (González, 2007: 159), estatutu-proiektuaren erredakzioa gidatu zuen, eta 1931ko ekainerako onartua zegoen, gero gizarteak erreferendumean berretsita gehiengo oso zabalaz. Alta, Gorteetan izandako negoziaketetan, murrizketa oso handiak egin zitzaizkion aurreproiektuari, ERCren haserrea sorraraziz. 1932ko abuztuan porrot egindako Sanjurjoren estatu-kolpeak soilik animatu zuen ERC autonomia-estatutua onartzera, eta murrizketak murrizketa, 1932ko irailean estatutua Gorteetan onartu zen (González, 2007).

Garai horretako sistema politikoa honako taula honetan laburtu dezakegu:

2. taula. Espainiako sistema politikoa 1931-1939an.

Sistemaren definizioa	Trantsizioa erregimen autoritariotik demokrazia politikora
Konstituzioaren indarraldia	8 urte
Democracy index	-

Iturria: lanketa propioa.

Errepublika-garaia erregimen autoritariotik demokrazia politikorako trantsizio gisa sailkatu dezakegu (Linz, 1971). Bigarren Errepublika etapa nahiko ezengokorra da Espainiako historian, hain da horrela Gerra Zibilak amaituko zuen Errepublikarekin. Euskadiko mugimendu nazionalistarentzat etapa bereziki garrantzitsu gisa definitzen du De la Granjak (1998: 222): «la-ia estatu berri bat sortzeko nazionalismoaren helburua lortzeko puntuan egon baitzen Agirre». Errepublikako konstituzioak 8 urteko indarraldia izan zuen, 1936tik 1939ra arteko epean Konstituzioa eremu gutxi batzuetan soilik indarrean egon zelarik.

Epe hori aztertzeko, Euskal Herriaren kasuan, Lizarrako Estatutua eta 1936ko Estatutua aukeratu ditugu. Horiek hautatu ditugu eta ez besteak, batetik, Lizarrako Estatutua aurreproiektuaren gainean alderdiek landutako eta «adostutako» lehenengo estatutu-proiektua delako, eta beraz, alderdiek Euskadin adostutako estatus politikoaren inguruko testu garrantzitsu dugu; eta, bestetik, 1936ko Estatutua, aurrekari guztiak albo batera, Euskadin onartutako lehenengo autonomi-estatutua dugulako. Hau da, lehenengo Euskadin alderdien arteko negoziaketen fruitu da,

eta bigarrena, onartutakoa, Espainiako Gorteekin negoziatutakoa eta murriztua, haren legaltasunari egokituz.

Kataluniako kasuan, 1931ko estatutu-aurreproiektua aztertuko dugu, bai eta Nuriako Estatutua. Euskal Herrian bezala, lehena Katalunian bertako alderdi politikoen adostasunaren fruitu, eta, bigarrena, Madrilen negoziaketan osteko eta legaltasunaren egokitzapenen ondorio.

Bien azterketa egitea ikusi dugu komenigarri, lehenengo aurreproiektu horiek informazio bereziki baliagarria ematen zigutelakoan. De la Granjaren hitzetan (2007: 427):

1936an onartutako Estatutua «minimoen Estatutua» izan zen, apenas 14 artikulurekin. [...] eta 1932ko Kataluniako Estatutua imitatzen zuen, Euskal Herriko «erregio autonomoa» sortzen zuen eta fakultate autonomikoak izendatzera mugatzen zen, «organo exekutibo» eta «organo legegile»-en existentzia aipatzera eta 1925eko Kontzertu Ekonomikoaren indarraldia mantentzera.

Hau da, onartutako estatutuak soilik aztertuta, informazio urria lor genezake erregioaren funtzionamendurako ezinbesteko diren artikulua eskasak besterik ez dituztelako aipatzen.

Errepublika-garai horretan nabarmendu dezakegu argi eta garbi ikusten dela bi herrien arteko paralelismoa. Lehenengo estatutuari dagokionez, hots, herrialde bakoitzeko aurreproiektu nagusiari dagokionez, honakoak azpimarratu ditzakegu:

- Katalunian zein Euskal Herrian nagusitzen den sezesiorako bidea teoria nazionalistarena da. Nabarmentzekoa da, baita ere, teoria erremediala Kataluniaren kasuan Cuadras-Moratók (2016) aipatzen duenez, kasu horretan autodeterminazioa bidezko kausaren bidez lortu zitekeelako Gerra Zibilaren garaian Katalunian. Horrela adierazten du egun haietako giza eskubideen urraketak direla medio, tartean Lluís Companysen bahiketa eta hilketa. Kontuan hartu behar dugu, ordea, garai hartan alderdiek ez zutela horren aldarrikapenik egin, eta gaur egungo azterketatik egiten direla irakurketa horiek. Euskal Herriaren kasurako ere luzatu genezake irakurketa hori, giza eskubideen urraketa-baldintza antzekoak eman baitziren. Kasu honetan, Agirreren hitzak hartu ditzakegu baieztapen hau argudiatzeko: «Si el gobierno central hace un acuerdo de rendición, espero decir al señor Negrín que entonces levantaré yo la bandera de Euskadi independiente. Hace más de un año no tenemos territorios, pero tenemos a todo el pueblo con nosotros» (in Letamendia, 1975: 254). Bidezko kausa edo azken erremedio gisa planteatzen baitu Agirrek autodeterminazioa (independentzia) kasu honetan.
- Bi herrialdeek autonomia-maila oso altua ezartzen dute euren erregiorako: Kataluniaren kasuan, Estatu eratzen dira, Espainiako Estatu federal baten barnean, eta Euskadin, lege propioak goren gisa ezartzen dira, Estatuaren barnean egonik.

- Lurraldeari dagokionez, Kataluniak *Principateko* lurraldeak hartzen ditu bere gain, *Països Catalan*seko gobernu bat sortzeko aukeraz. Eta Euskal Estatutuak Hegoaldeko lau lurraldeak barnebiltzen ditu. Gainera, bi lurraldeek barruko edo inguruko lurraldeak sartzeko aukera zabalik uzten dute.
- Alderdien jarrerei dagokienez, Katalunian adostasun oso zabala lortu zuen estatutuak; Euskadin, ordea Acción Nacionalista Vasca-k (aurrerantzean ANV) bere aurka bozkatu zuen (gainontzeko ezkerrekin batera).

Azkenean onartutako estatutuaren (1932ko Nuriako Estatutua eta 1936ko Estatutua Euskadin) aurrean honakoak azpimarratu daitezke:

- Estatutuak ez die sezesio-bideei aipurik egiten. Alderdien artean ordea teoria nazionalista nagusitzen da.
- Erregio autonomo gisa sortu eta estatutu oso xumea onartzen da.
- Lurraldeari dagokionez, Katalunian *Països Catalan*seko gobernu bateratua sortzeko aukera ahaztu egiten da (alderdietan ezinegon handiegia sortu barik); eta Euskal Estatutuan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa soilik hartzen dira barne, alderdietan ezinegon handia sorturik, baina pragmatismoagatik horren alde bozkatu zutelarik.

3.2. Trantsizioa eta estatutuen onarpena

Franko diktadorearen heriotzaren ostean (1975) aro berri bat irekitzen da Espainian, eta erregimen autoritariotik demokrazia baterako trantsizio-prozesua abiatzen da. Trantsizio horretan gakoa dira 1977ko ekaineko hauteskunde demokratikoak eta Espainiako Konstituzioaren onarpena (1978), geroago Katalunia eta Euskadi autonomia-erkidego bihurtzea ahalbidetuko zuena.

Euskadin Euskal Estatutuaren aurreproiektua Gernikan onartu zen eta alderdi politiko nagusien gehiengoak hartu zuen parte haren lanketan (Alianza Popular, EAJ, Unión de Centro Democrático, Partido Comunista, Euskadiko Ezkerra...), Herri Batasunak izan ezik. Estatutuak Euskal Herriaren naziotasuna aldarrikatzen zuen, kompetentzia eskusibo gisa hartzen zituen gizarte-segurantza, ekonomia, kultura, hezkuntza... euskararen ofizialtasuna ezarri, euskal ogasunak sortu... (Fusi, 1979: 106).

Madriren desadostasunak heldu ziren Konstituzioa gainditzeko zuelakoan, baina Espainiako ezegonkortasuna ikusita eta biolentziaren gorakada ikusita (Fusi, 1979), Espainiako gobernuak egoki ikusi zuen Gernikako Estatutura hurbiltzen zen estatutua onartzea. Horrela, Espainiako gobernuaren eta euskal ordezkarien arteko negoziazioak hasi eta uztailaren 17an batzorde txostengile konstituzionalak Gernikako Estatutua onartu zuen, Gernikako Estatutuaren aurreproiektutik gehiegi urrundu gabe (Fusi, 1979: 107).

Kataluniako kasuan, Madriren aurreproiektuari egindako murrizketak handiagoak izan ziren. «Errealitate nazional» adiera «nazionalitateak» ordezkatu zuen;

probintziak eta diputazioak mantentzen ziren, mankomunitateen orde; konpetentzia eskusiboen artean erreferendumaren erregulazioa kendu, hezkuntza-konpetentzia oso bihurtu zen eta ez eskusibo, ogasuneko arloa guztiz berridatzi zen, arlo ekonomikoan ere murrizketa nabariak egin ziren... Horrela, Kataluniako alderdien artean ezinegona sortu zen (Sobrequés, 2010: 113).

Espainian 1975etik 1978ra trantsizio izeneko etapa zabaldu zen, erregimen autoritario batetik demokrazia politikora pasatzeko asmotan. 1977an izan ziren diktadura osteko lehenengo hauteskunde demokratikoak eta 1978an onartu zen Espainiako Konstituzioa. Giro bereziki ezegonkorra dugu hau.

3. taula. Espainiako sistema politiko 1975-1978an.

Sistemaren definizioa*	Trantsizioa sistema politiko autoritariorik demokrazia politikora
Konstituzioaren indarraldia	1978an onartua
Democracy index	-

*Linz (1971)ren sailkapenetik hartuta.
Iturria: lanketa propioa.

Etapa honetan aztertzeo ditugun dokumentuen artean, Letamendiak autodeterminazio-eskubidea konstituzionalizatzeko sartu zuen zuzenketa aztertuko dugu, eskubide hori konstituzionalizatzeko saiakera nagusietakoa izan baitzen (Viciano, 1991). Eta Gernikako eta Sauko Estatutuak ere izango ditugu aztergai (horren aurrean mugimendu nazionalistako alderdiek duten jarrera aztertuz ere).

Zuzenketak honakoa planteatzen zuen: eskubidea gauzatzeko, estatuko herriek aurretik autoeratu behar zuten lurralde autonomo gisa, Konstituzioarekin bat. Ekimena lurraldeko asanbladari zegokion, proposamena asanbladako kideen laurden batek behintzat babestu behar zuelarik eta onartzeko gehiengo absolutua beharrezkoa zelarik. Onarpen hori erreferendumean berretsi beharko zen lurralde afektatuan, onartzeko lurraldeko probintzia guztietan eroldaren gehiengo absolutua beharrezkoa izanda. Onarpena lortu ezean, erreferenduma lortzeko aukera legoke bi urteren buruan, lurralde autonomoaren hurrengo legealdian (Viciano, 1991).

Bigarren etapa honetan, aurrekoan bezalaxe, paralelismo handia antzeman dezakegu Kataluniaren eta Euskal Herriaren artean. Horrela, Letamendiaren zuzenketaren aurrean, hauek nabarmendu ditzakegu:

- Ezker nazionalistak sezesiorako prozedurazko bidearen aldeko apustua egiten du (bide nazionalistaren kutsu argiak badaude ere, nazio-izaeraren errekonozimendua zentrala baitzen); eskuin nazionalistan, ordea, indarra hartzen du izaera nazionalaren errekonozimenduak (teoria nazionalista; Álvarez, 2006), autodeterminazioa konstituzionalizatzearen aurka agertuta eta, beraz, prozedurazko bidearen aurka (pragmatismoagatik bada ere euskal nazionalisten kasuan). Nabarmentzekoa da, orobat, eskuin nazionalistaren moderazioa eta isiltasuna autodeterminazioaren inguruan posizionatzeko orduan (Viciano, 1991).

Diktadura osteko estatutuei dagokienez ere paralelismoa nabaria da:

- Zentral bihurtzen da errekonozimendu nazionalaren afera, «nazionalitate» hitza jaso zela Konstituzioan. Teoria nazionalista nabarmentzen da alderdi guztien jarreran, baina bereziki Herri Batasunean (aurrerantzean HB), lurraldetasuna zentrala ulertzen du eta.
- Estatutu bietan jasotzen dira nazioko parte diren eta estatututik kanpo geratu diren herrialdeekiko harremanak. Euskadiren kasuan Nafarroa sartzeko aukera ezarriz; eta Kataluniaren kasuan loturak sortzeko aukeraz.
- Kataluniaren kasuan *Principatera* mugatzen dira arazo barik. Bitartean, Euskal Herrian Nafarroa sartzeko ahaleginak egiten dira, azkenean EAJk eta Euskadiko Ezkerrak (aurrerantzean EE) hiru herrialdeko estatutua onartzen dute (Nafarroa barik), HB horren aurka agertzen dela.
- Eskuin zein ezker nazionalista moderatuek estatutuen aldeko bozka eskatu zuten. Euskadin, ordea, ezker erradikalak, HBk, estatutuaren aurkako bozka eskatu zuen.

3.3. Ekialdeko sezesioen olatua

Sobietar Batasunaren deskonposizioaren testuinguruan, Estoniak, Letoniak eta Lituaniak autodeterminatzeko prozesuak jarri zituzten martxan. Une hartako momenturik deigarriena *Bia Baltikoa* deiturikoa izan zen: Tallin, Vilnius eta Riga elkartzan zituen 600 km-ko giza katea, zeinean independentzia eskatzen zuten.

Europar jazotako autodeterminazioaren olatu hori nabaritu zen Espainiako Estatuko mugimendu nazionalistetan ere. Horrela, Euskadik zein Kataluniak autodeterminazioaren aldeko aitorpenak onartu zituzten euren Parlamentuetan. Horrela, Eusko Legebiltzarrak zein Kataluniako Parlamentuak autodeterminazio-eskubidearen aldeko lehenengo aitorpena egin zuten.

Hirugarren etapa honetako sistema politikoa demokraziaren kontsolidazioaren etapa gisa definitu dezakegu Linzen (1971) analisia hartuta. 1989ko urrian bertan egin ziren hauteskundeak (aurreratuak kasu honetan) eta Felipe Gonzalezen PSOEk hirugarren aldiz irabazi zituen, gehiengo absolututik eserleku batera geratuta. Trantsizioaren amaieraren data ezartzeko orduan ez dago akordiorik autoreen artean, horrela batzuek Konstituzioaren onarpenean jartzen dute data, beste batzuek Katalunia eta Euskadiko onarpenean ostean, batzuek Partido Socialista Obrero Español-ek (aurrerantzean PSOE) hauteskundeak irabazi zituenekoan 1982an, eta PSOEk bigarren aldiz irabazi zituen datan (Powell, 2006: 11). 1978ko Konstituzioak 11 urteko indarraldia zuen 1989an.

Hirugarren etapa honetan Euskal Autonomia Erkidegoko zein Kataluniako legebiltzarrek lehenengo aldiz onartutako autodeterminazioaren aldeko aitorpenak ditugu aztergai, mugimendu nazionalistako alderdiek horien aurrean izandako jarrerarekin batera.

4. taula. Espainiako sistema politikoa 1989an.

Sistemaren definizioa*	Demokrazia post-autoritarioaren kontsolidazioaren etapa
Konstituzioaren indarraldia	11 urte
Democracy index	-

*Linz (1971)ren sailkapenetik hartuta.
Iturria: lanketa propioa.

Kasu honetan ere paralelismoak aurkitzen ditugu Kataluniaren eta EAEn artean. Honela:

- Lehen aldiz teoria nazionalistaz gain, teoria plebisitarioaren aldarriak agertzen dira: herritarren borondatea, erabakitzeko duten eskubidea...
- Bi adierazpenetan Parlamentuaren zilegitasuna erabaki propioak hartzeko nabarmentzen da, betiere marko juridikoa onartuz.
- Kataluniaren kasuan lurraldearen inguruko eztabaidarik ez da planteatzen, baina EAEn kasuan, argi adierazten da EAJ, Eusko Alkartasuna (aurrerantzean EA) eta EEren marko juridiko-politikoaren onarpena. Betiere, Euskal Herria aldarrikatzen dutelarik eta adierazpenean «Pueblo Vasco» kontzeptu anbigua jarrita. Herri Batasunak, bere aldetik, Euskal Herriaren batasunean zentratu eta ez zuen bozketan parte hartu.

3.4. Autonomia-estatutuen berritzea

2001ean Ibarretxe lehendakariak estatutuaren moldaketarako asmoa adierazi zuen Politika Orokorreko plenoan. 2003ko urrian aurkeztu zen lehen aldiz Euskadiko Estatutu Politiko Berria, Ibarretxe Plan gisara ezagutua. 2004an Eusko Legebiltzarrak onartu eta Kongresura bidali zen bere onesperako, eta Madrileko Kongresuan 2005eko otsailean ezezkoa jaso zuen.

Katalunian, aldi berean, 2003ko abenduan, Partit dels Socialistes de Catalunya (PSC), ERC eta Iniciativa per Catalunya Verds taldeen gobernu-akordioa sinatzean autonomia-estatutua berritzera konprometitu ziren. Parlamentuak estatutua onartu eta Kongresura eramatean, murrizketa garrantzitsuak jaso zituen estatutuak, batez ere Generalitateko ezartzen ziren kompetentzietan finantzaketaren inguruan eta nazioaren definizioan. Horrek liskarra sortu eta ERC baietza eskatetik ezetza eskatzera igaro zen, murrizketarik gabeko estatutua aldarrikatuz eta tripartitoaren haustura sortuz.

5. taula. Espainiako sistema politikoa 2006an.

Sistemaren definizioa*	Demokrazia osoa
Konstituzioaren indarraldia	28 urte
Democracy index	8,34 (16.a rankingean)

*The Economist-en democracy index kontuan hartuta
Iturria: lanketa propioa.

2006ko Espainiako sistema politikoa demokrazia politiko gisa definitu zuen Linzek (1971), baina definizio hori osatzeko *democracy indexa* erabiliko dugu. Horretan, 8,34ko puntuazioa ematen dio (16.a izanik munduko rankingean) eta demokrazia oso gisara definitu. Gainera, Konstituzioaren indarraldi luzea eta egonkortua jada nabarmendu daiteke ere: 28 urteko indarraldia.

Laugarren etapa honetan Kataluniak zein EAEk egiten dituzten estatutuen moldaketarako proposamenak aztertuko ditugu. Euskadiren kasuan, Ibarretxe Plana izango dugu aztergai (Gorteetan onartu ez zena); eta, Kataluniaren kasuan, 2005ean Kataluniako Parlamentuak onartutako estatutua aztertuko dugu. 2005ekoa aztertuko dugu eta ez murriztutakoa, alderdien jarreran aldaketa garrantzitsuak sortzen dituelako. Beraz, onartutakoaren analisi zehatza ez egin arren, ezberdintasunak aipatu eta estatutu biei alderdiek ematen dieten erantzuna jasoko dugu.

Euskadi eta Katalunia, berriz ere, batera doaz euren estatutuen moldaketaren prozesuan. Bi herrialdeek 2001-2003 artean erabaki zuten euren estatutuen berritzea. Gainera, kasu honetan ere, antz handia dute bi prozesuek:

- Bi estatutuek herritarrek euren etorkizuna erabakitzeko eskubidea jaso eta nazio-izaera onartu egiten dute.
- Lurraldeari dagokionez, Katalunian (aurrekoetan bezala) *Principatera* mugatzen dira alderdiak zein estatutua. Baina kasu honetan jaso egiten da lotura historiko, kultural eta linguistikoak dituzten herrialdeekin harremanak izateko aukera, eta lehenengo aldiz kanpoko komunitate katalanekin harremanak jasotzen dira. Euskadiko Estatutuaren kasuan, ordea, EAE, Nafarroa eta Iparraldeko eremu juridiko-politikoak onartu eta balioan jartzen dira, Euskal Herriko parte direla baieztatzearekin bat. Hau da, kasu bietan, onartu egiten da marko juridiko-politikoa, Euskadin HB salbu, zeinek Euskal Herriko lurralde guztien batasuna aldarrikatzen duen.
- Eskuin nazionalista eta ezker nazionalista moderatuak estatutuaren alde daude. Baina, Kataluniaren kasuan estatutuaren murrizketak ezezkua eskatzera daramatza, eta Euskadiren kasuan ezker erradikala estatutuaren aurka agertzen da (hala ere, haren onarpena bideratzen du bere botoen zatiketaren bidez).

3.5. 2012ko hauteskundeen osteko estatusaren eztabaidak

Katalunian estatutuaren murrizketatik aurrera, eta Epaitegi Konstituzionalak gehiago murriztu ostean, Kataluniako Parlamentuko erabakiak errespetatzearen aldeko jarrerak handituz joan ziren. 2006an «Som una nació i tenim el dret a decidir» lelopean manifestazioa deitu zuen Kataluniako Erabakitzeko Eskubidearen aldeko Plataformak. Urtero manifestazio jendetsuak errepikatzen dira Katalunian. Horrela, 2012ko hauteskundeetarako alderdi guztiek (Partido Popular —PP— eta Ciutadans —C’s— salbu) erabakitzeko eskubidea jaso zuten euren programetan. 2013ko urtarrilean Kataluniako Parlamentuak Subiranotasun Aitorpena onartu zuen ERC, Convergència i Unió (CiU), ICV eta Candidatura de Unitat Popularren (CUP) boto batekin.

Euskadin 2012an ere egin ziren hauteskundeak, erabakitzeko eskubidearen aldeko Kataluniako tamainako mugimendurik gabe. Testuinguru ezberdinean egin ziren Euskadin, ETAre biolentziaren amaieraren testuinguruan. Hala ere, Kataluniako haizeak hartuta, 2013an autogobernu-ponentzia bat sortzea erabaki zuten EAEko Parlamentuak EAJ eta PSEren bozkekin.

6. taula. Espainiako sistema politikoa 20013an.

Sistemaren definizioa*	Demokrazia osoa
Konstituzioaren indarraldia	35 urte
Democracy index	8,02 (15.a rankingan)

*The Economist-en democracy index kontuan hartuta
Iturria: lanketa propioa.

2013an Espainiako sistema politikoa demokrazia politiko (Linz, 1971) edo demokrazia oso gisa definitu dezakegu. Azken etaparekin alderatuta, ordea, demokraziaren indizean beherakada nabarmena nabaritu dezakegu. Krisi ekonomiko eta finantzarioak Europa ere jo du, bereziki hegoaldeko herrialdeetan, eta eurogunearen krisiak subiranotasuna eta demokraziaren *accountability*-a erosi ditu (The Economist, 2013).

Azken urteetako estatus politikoaren eztabaidak aztertzeke, Euskadin EAJ eta EHBilduren proposamen politikoak aztertuko ditugu, haien programa politikoetan jasoak. 2013ra arteko epean ez dago autodeterminazioaren inguruko adierazpen instituzional edo estatutuaren moldaketarik, beraz, alderdien jarrera aztertuko dugu zuzenean.

Kataluniaren kasuan 2013an Subiranotasun Aitorpena onartu zuten Parlamentuak eta hori izango dugu aztergai. 2013ra arteko analisia egingo dugu lan honetan, hortik aurrera Kataluniako prozesu independentista martxan jartzen delako. Alta, prozesu hori amaitu gabe dago, eta hori ez aztertzeke hautua egin dugu, egokiago ikusten baitugu urteek ematen duten perspektibaz analizatzea horrelako prozesuak. Euskal Herrian, ordea, ez dago horrelako prozesurik martxan, baina bai estatutuaren moldaketa aztertzen ari den autogobernu-ponentzia.

Aurreko etapetan ez bezala, honetan ezin dugu esan Euskal Herriak eta Kataluniak bide paraleloak daramatzatenik. Izan ere, ez dugu alderagarria den adierazpen edo testu instituzionalik bi herrialdeetan. Katalunian subiranotasun-aitorpena eta prozesu soberanista bat martxan dagoen bitartean, Euskal Herrian ez dago horrelakorik. Hala ere, honakoak aipa ditzakegu:

- Euskal Herrian zein Katalunian teoria plebisitarioaren aldarria nagusitu egiten da. Denek teoria nazionalistari egiten dizkiote aipuak. Horien artean CUPenak nabarmendu behar ditugu.
- Lurraldeari dagokionez, mugimendu nazionalistako alderdi guztiek marko juridiko-politiko onartzen dute, eta deigarria da Katalunian CUPek *Països Catalans*en aldarria eta, batez ere, Euskal Herrian ezker abertzaleak (EHBilduren barruan) hiru eremuen onarpena egiten dutela.

4. Ondorioak

Lan honekin galdera orokor bati erantzuteko asmoa genuen: *aldatu da edo aldatzen ari da mugimendu nazionalistaren sezesiorako estrategia autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapenetik erabakitze eskubidearen aldarrikapenera sezesiorako bidean? Paradigma-aldaketa hori eman bada edo ematen ari bada, zergatik?*

Atal honen xedea galdera orokor horri erantzun zehatz eta sinpleak ematea da. Hona, bada, ikerketa-lan honen ondorioen atal hau.

4.1. Erabakitze eskubidearen paradigmen indarra

Lanean zehar ikusi dugun bezala, harreman estua dago sistema politikoaren eta aldarrikatutako sezesiorako bidearen artean. Frogatutzat eman dezakegu, beraz, aipatutako lehenengo hipotesia: *sistema politiko demokratikoa egonkortu ahala, erabakitze eskubidearen paradigma indartu egiten da sezesiorako bide bezala demokrazia liberaletan*. Horrela, sistema politiko ezegonkorra dagoenean, hau da, erregimen autoritariotik demokrazia politikorako bidean dauden agertokietan, teoria nazionalista nagusitzen da. Sistema politiko demokratikoa egonkortze bidean dagoenean, teoria nazionalistaz gain, teoria plebisitarioa ere agertzen da. Eta, sistema gero eta gehiago egonkortu ahala, hau da, demokrazia liberal osoko agertokian (konstituzioaren indarraldi luzearekin) teoria plebisitarioa indartu egiten da.

Baieztapen hori modu argiagoan adierazten da lehenengo ondorioaren laburpen-taulan (ikus 1. eranskina: 7. taula).

Laburpen-taulan lehenengo begirada batean oso erraz ikusten da Kataluniaren eta Euskal Herriaren artean paralelismo itzela agertzen dela historian zehar aldarrikatutako sezesio-bideari dagokionez.

Bigarren Errepublika eta Gerra Zibilaren garaian, teoria nazionalista nabarmentzen da bietan, nazio-izaeraren errekonozimendua zentrala delarik. Biek plebiszitatzeko dituzte autonomia-maila oso altua aurreikusten duten autonomia-estatutuak, eta geroago, garaiko ezengokortasuna dela-eta autonomia-estatutu oso sinpleak onartzen dituzte. Katalunian, gerra-garaian, teoria erremedialaren aldarria ere nabarmendu dezakegu giza eskubideen urraketak direla-eta (Cuadras-Morató, 2016). Arrazoi horrengatik, teoria horren aplikazioa ere luzatu genezake Euskal Herrira, baina kontuan hartu behar dugu irakurketa hauek gaur egunetik eginak direla.

Trantsizioaren garaian, teoria nazionalistaren aldarria nagusitu zen berriz ere. Baina kasu honetan autodeterminazio-eskubidea konstituzionalizatzeko saiakera egin zen: eskuin nazionalista horren aurka agertuz eta ezker nazionalista alde. Estatutuen onarpenean ere, nazio-izaeraren errekonozimenduari ematen zaio garrantzi berezia, teoria nazionalistaren aldarria nagusitzen delarik.

Lehenengo autodeterminazio-adierazpenak onartu ziren garaian, teoria nazionalistaren aldarria ere nagusitu zela aipa dezakegu, ideia esentzialistak behin eta berriro agertuta; baina kasu honetan, ezker nazionalista moderatuak berrikuntza bat sartzen du: herritaren borondatearen errespetua dela zilegitasun-iturri nagusia. Horrela, EAk erabakitzeo eskubidea kontzeptua erabiltzen du. HB, ordea, termino guztiz nazionalista-esentzialistetan mugitzen da.

2000ko hamarkadako estatutuen moldaketetan, izaera nazionalaren errekonozimenduak parte garrantzitsua hartu zuen, baina estatutu bietan jaso zen herritarrek erabakitzeo duten eskubidea modu batera edo bestera. Alderdien artean ere, teoria nazionalistaz gain, teoria plebisitarioaren defentsa indarra hartuz joan zen. Horrela eskuin eta ezker nazionalista moderatuan herritarren eskubidea oinarritat hartu zen. Euskal Herriko ezker abertzalean, ordea, lurraldetasuna gako bihurtu eta teoria nazionalistaren aldarrian zentratu ziren.

Azken etapan nabarmentzekoa da alderdi nazionalista guztiak teoria plebisitarioaren aldarrian zentratzen direla. Horrela, ezker abertzalea ere, horren aldarrian zentratu izan da, lehenengo aldiz bere estrategian teoria nazionalista elementu zentral gisa agertu gabe. Azpimarratzekoa da ere CUPen estrategia, zeinean oraindik ere teoria nazionalistaren zertzelada handiak ikus ditzakegun, batez ere lurraldetasunari lotuak.

Ibilbide historiko honekin hipotesian egiten genuen baieztapena frogatutzat eman dezakegu, ikusi dugulako nola sistema politikoa demokratizatuz eta sistema politiko demokratiko hori egonkortuz doan heinean, sezesiorako bidea aldatzen den.

Sezesiorako bideen inguruan apuntetxo bat egin behar dugu puntu honetan: lanean zehar lau sezesiorako bide identifikatu ditugu (Requejo, 2015; Álvarez, 2006): teoria nazionalista, bidezko kausaren teoria (erremediala), teoria prozedimentala eta teoria plebisitaria. Azken hori erabakitzeo eskubide kontzeptuarekin lotu egiten da, non zentral bihurtzen den «prozeduraren legitimazio demokratikoa» (López, 2011). Beraz, lau teoria horiek bi kategoriatan bana ditzakegu: autodeterminazioa (nazionalista, prozedimentala eta bidezko kausa elkartz) eta erabakitzeo eskubidea (teoria plebisitaria).

Horrela, grafikoago ikus dezakegu sezesiorako-bideen ibilbidea eta hau ondoriozta dezakegu: sistema politiko demokratikoa egonkortu ahala, erabakitzeo eskubidearen paradigma indartu egiten dela. Horrela ikusi dugularik ibilbide historiko honetan modu alderatuan: erregimen autoritariotik demokraziarako trantsizioetan, bai eta sistema politiko ezegonkorren kasuetan autodeterminazioaren aldarria nagusi zelarik (nazionalista, prozedimentala edo bidezko kausa) eta demokrazia osoko kasuetan erabakitzeo eskubidearen paradigma indartuta ikusi dugularik.

4.2. Lurraldearen garrantzia

Bigarren hipotesi gisa hauxe formulatu dugu: *aldarrikatutako nazioaren parte batean edo parteetan sistema politiko demokratikoa egonkortu ahala, historikoki aldarrikatutako lurralde osoaren autodeterminazio-aldarria leunduz doa.*

Lanean zehar ikusi dugun eboluzio historikoa aztertuta, adieraz dezakegu badagoela harremana sistema politikoaren eta aldarrikatutako lurraldearen artean. Kasu honetan, hori bai, Kataluniaren eta Euskal Herriaren arteko ezberdintasunak handiagoak dira.

Azalpena errazte aldera, ikus 2. eranskina: 8. taula.

Katalunian *Principat* hartu da erreferentziazko lurralde gisa historian zehar autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzeko, kontuan izanik Kataluniako lurraldetasunaren inguruko eztabaida sakonik ez zela egon Trantsizioaren garaira arte (Nogué, 1991). Bigarren Errepublikako garaian eginiko 1931ko Estatuaren aurreproiektuan *Països Catalans*en gobernu bateratua osatzeko aukera ikusten zen. Baina aztergai izan ditugun gainontzeko epeetan, *Principat* izan da erreferentziazko lurraldea, lotura historiko, kultural edo linguistikoa zuten herrialdeekiko kolaborazioa sustatuz. Ikusi dugu, gainera, lurraldetasunaren gaiak ez duela gizartearen zatiketarik sortzen Katalunian (Blas, 2014). Kontzeptu hori hedatua dago nazionalista katalanen artean «kolektibitate historiko linguistiko kultural gisa (País Valencià, Illes Balears eta Principat de Catalunya osatzen dute)» (Solé, 1980: 119), baina zalantzak agertzen dira hori subjektu politiko gisa hartzean (transferentzia politiko txikia konfederalismotik egin dela), argi izanez unitate (herri) bakoitza politikoki soberanoa dela eta bere ibilbidea egin behar duela (Blas, 2014). Hau da, sistema politiko demokratikoaren egonkortzeak nazioaren parte batean ez du ondorioz izan historikoki aldarrikatutako lurralde osoaren autodeterminazio-aldarrian, zeren eta lurralde osoa nazioen nazio gisa ulertu da, *Principat* naziotzat hartuz, eta *Països Catalans*eko gainontzeko herrialdeak ere naziotzat hartuz eta haiekiko elkarlana sustatuz.

Euskal Herriaren kasuan, ordea, lurraldetasunaren arazoa larria izan da eta seguruenik blokeorako elementu garrantzitsuena (Blas, 2014). Abertzaletasunaren parte garrantzitsu batek urteetan egin duen diskurtsoa sezesiorako bide nazionalistetan oinarritu da (Requejo, 2015): Euskal Herri osoak du autodeterminazio-eskubidea, euskal nazionalismoak identitate etniko oso garrantzitsua izan du, ikuskera primordialista batean oinarritua (Sorens, 2005). Ikusitako ibilbidean, nabarmendu dezakegu alderdi nazionalistetan Euskal Herria osoaren aldarria (zazpi lurraldeena) nagusi izan dela. Hala ere, nazionalismo moderatuak onartu egin du nazioaren parte bat egituratzea zazpi lurraldeak barnebidu gabe, hau da, onartu egin du (pragmatismoagatik bazen ere) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren egituratzea. Ezkerreko nazionalismo erradikalak, bestalde, ez du eremu juridiko-politiko ezberdinduen onarpenik egin 2013ra arte, noiz Euskal Bidea proposamena plazaratu baitzuen.

Baiezta dezakegu, kasu honetan, sistema politikoak eta lurralde osorako autodeterminazio-aldarriak badutela lotura. Horrela, Euskal Herriaren kasuan, baieztatu dezakegu nazio parte batean edo parteetan sistema politiko demokratikoa egonkortzen den heinean, historikoki aldarrikatutako lurralde osoaren autodeterminazio-aldarria leunduz joan dela. Hau da, nazio parteak (EAE eta Nafarroa, kasu honetan) bereizita egituratu eta sistema hori egonkortu den heinean, Euskal Herria osorako autodeterminazioaren aldarria leunduz doala.

Baieztapen hori lanean zehar ikusi dugu modu argiagoan: sistema politiko ezegonkorren garaian, Errepublika eta Gerra Zibileko garaian eta Trantsizioan, Euskal Herri osorako autodeterminazio-aldarria nagusitu zen, eta Nafarroa sartzeko saiakerak bereziki azpimarragarriak izan ziren. Sistema egonkortze bidean zegoen garaian (autodeterminazio-adierazpenak egin zirenekoa), Euskal Herri osorako autodeterminazioa agertu bai, baina eremu juridiko-politiko ezberdinen onarpena egiten hasi zen. Demokrazia osoko garaietan, eremu juridiko-politiko ezberdinen onarpena handituz doa, ezker abertzale erradikalak ere hori onartzen duen arte, 2013an Euskal Bidearekin. Azken finean, *demos* argi batek errazten baitu erabakitze eskubidearen aldarria, *demos* batek edozein gauzaren inguruan erabaki dezakeelako, aurretiko muga barik (López, 2011; Zubiaga, 2014).

Bibliografia

- Álvarez, J.A. (2006): *Sobre el derecho a la secesión en la independencia de Montenegro*, Facultad de Ciencias Jurídicas y Sociales, Universidad de Concepción, Txile.
- Beran, H. (1984): «A Liberal Theory of Secession», *Political Studies*, **32**, 21-31.
- Blas, A. (2014): «Sezesio prozesuak konparaturik: Eskozia, Katalunia eta Euskal Herria», *Larrun*, **187**, 2014ko maiatza, 9-15.
- , (2015): «Sezesionismoa eta erabakitze eskubidearen prezioa: desanexioaren paradigma merkatze saiakera gisa», *Revista internacional de Estudios Vascos*, **11**, 256-283.
- Burdeau, G. (1959): *Droit Constitutionnel et institutions politiques*, Librairie Generale de droit et de jurisprudence, Paris.
- Cuadras-Morató, X. (2016): *Catalonia: A new independent state in Europe? A debate on secession within the European Union*, Routledge, New York.
- De la Granja, J.L. (1998): «Actitudes y visiones de las fuerzas nacionalistas vascas sobre la Guerra Civil de 1936», *Vasconia*, **26**, 221-228.
- , (2007): «El nacimiento de Euskadi: el Estatuto de 1936 y el primer gobierno vasco», *Historia Contemporánea*, **35**, 427-450.
- De la Granja, J.L. eta Landaberea, E. (2006): «Acción Nacionalista Vasca-Euzko Abertzale Ekintza. De la fundación a la Guerra Civil (1930-1939)», *Auñamendi Eusko Entziklopedia*: <<http://www.euskomedia.org/aunamendi/18236/37501#epi37502>> (kontsulta: 2016/08/13).
- Fusi, J.P. (1979): «El problema vasco: de los fueros al Estatuto de Guernica», *Revista del Departamento de Derecho Político*, **5**, 1979-1980ko negua, 91-109.
- González, A. (2007): «La representació parlamentària catalana a les corts republicanes (1931-1939): del catalanisme hegemònic i pragmàtic a la vinculació amb la política española», *Butlletí de la Societat Catalana d'Estudis Històrics*, **28**, 157-172.
- Jellinek, G. (2000): *Teoría General del Estado*, Comare, Granada.
- Letamendia, F. (1975): *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*. Ruedo Ibérico Ediciones, Paris.
- , (1997): *Juego de espejos*, Trotta, Madril.
- , (2013): *Dos ensayos vascos*, Fundamentos, Madril.
- Linz, J.J. (1971): *Del autoritarismo a la democracia*. Yale University Press.
- López, J. (2011): «Del dret a l'autodeterminació al dret a decidir: un possible canvi de paradigma en la reivindicació dels drets de les nacions sense estat», *Quaderns de recerca UNESCOCAT*, **4**, 2011ko azaroa (kontsulta: 2015-06-18).

- Moreno, L. (2008): *La federalización de España. Poder político y territorio*. Siglo XXI, Madrid.
- Nogué, J. (1991): *Nacionalismo y territorio*, Editorial Milenio, Lleida.
- Norman, W. (2002): «Secesión y Democracia (constitucional)», in F. Requejo, *Democracia y pluralismo nacional*, Ariel Ciencia Política, Barcelona, 89-104.
- Powell, C. (2006): *El camino a la democracia en España*, Cuadernos de la España contemporánea, 1, CEU Ediciones, Madrid.
- Requejo, F. (2002): *Democracia y pluralismo nacional*, Ariel Ciencia Política, Barcelona, 157-168.
- , (2015): «Secession theories and processes in plurinational democracies. The catalan case», *Revista internacional de Estudios Vascos*, **11**, 256-283.
- Roeder, P. (2014): «Secessionism, Institutions, and Change», *Ethnopolitics*, **13**:1, 86-104.
- Saideman, S. (2007): «Ties versus Institutions: revisiting foreign interventions and secessionist movements», *Canadian Journal of Political Science*, **40**(03), 733-747.
- Sobrequés, J. (2010): *L'Estatut de la Transició. L'Estatut de Sau (1978-1979)*, Edicions del Parlament de Catalunya, Barcelona.
- Solé, C. (1980): «Identificación de los inmigrantes con la cultura catalana», *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, **9**/80, 119-138, Madrid.
- Sorens, J. (2005). «The cross-sectional determinants of secessionism in advanced democracies», *Comparative political studies*, 38. vol, **3**, 304-326.
- , (2012): *Secessionism: identity, interest and strategy*, McGill-Queen's University Press, Montreal eta Kingston.
- Urrutia, I.; Iñarritu, J. eta Nikolas, Z. (2012): «Euskal Estatuaren eraikuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze-juridiko-politikoa», M. Zubiaga (koord.), *Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herrigintza eta erakundeak*, Ipar Hegoa Fundazioa, Bilbo.
- Viciano, R. (1991): «El derecho de autodeterminación en nuestra reciente vida constitucional: análisis y problemática», *Revista de Derecho Político*, **34**, 143-188.
- Vilaregut, R. (2011): *Memòria i emergència en l'independentisme català. El cas de las Plataforma pel Dret de Decidir*, doktore-tesia, UAB.
- Wellman, C. (2005): *A Theory of Secession: The Case for Political Self-Determination*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Zabalo, J. (1996): *Euskal nazionalismoa eta nazio lurraldea*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao.
- Zubiaga, M. (2014): *La decisión democrática como fundamento del derecho a decidir*, Kataluniako Parlamentuko Batzordean agertzea, 2014ko udaberriari.

1. Eranskina.

7. taula. Lehenengo ondorioak (laburpena).

		Sistema politiko					Sesioak biloba				
	Aztertuak dokumentua	Sistemaren definizioa	Konstituzioaren indarritasun indizea	Democracy Index	Eratzutik/aldizpenetik bere gain hartutako lurraldeak	Eratzutik/aldizpenetik bere gain hartutako defintutako herriak	Aldizkariak/aldizkariak	Aldizkariak/aldizkariak	Aldizkariak/aldizkariak	Aldizkariak/aldizkariak	
Euskal Herria	1. etapa	Uztarrak Estatu batua 1980ko Estaturua	Trantsizioa erregimen autoritarotik demokrazia politikoan	8	-	Alpauk ikoz Eratu barmen lege proposatu gurutu Erregio autonomoa	EAI, AId, ANV, Aurka	Nazionalista	Nazionalista		
	2. etapa	Uztarrak/lehen emendaketa Gentilak Estaturua	Trantsizioa erregimen autoritarotik demokrazia politikoan	0.1	-	Prozedimendala Nazionalista	EAI, Aurka, EE, AId EAI eta EE, AId HB, Aurka	EE, AId Nazionalista	EE, AId Nazionalista	EE, AId Nazionalista	
	3. etapa	EAIko autodeklarazioa aldizpena	Demokrazia post-autoritaroaren konsolidazio etapa	11	-	Nazionalista	EAI, EA eta EE, AId Aurka	EE, AId Nazionalista/Plebizarria EE, HB	EE, AId Nazionalista	EE, AId Nazionalista	
	4. etapa	Ibarretxe planoa Euskal Bidera	Demokrazia osoa	28	8.34	Nazi onaketa/plebizarria Plebizarria	-	-	-	-	EAI eta EA: Nazionalista/Plebizarria HB, Nazionalista
	5. etapa	EAIren proposamena	Demokrazia osoa	35	8.02	Nazionalista/Prozedimendala	-	-	-	-	Plebizarria Nazionalista/Prozedimendala
Katalunia	1. etapa	1980ko auziraketa 1982ko Estaturua	Trantsizioa erregimen autoritarotik demokrazia politikoan	8	-	Nazionalista	Estatu fidei-cula Erregio autonomoa	Denak alde Denak alde	Denak alde	Nazionalista Nazionalista/Erreindaketa*	
	2. etapa	Uztarrak/lehen emendaketa Suko Estaturua	Trantsizioa erregimen autoritarotik demokrazia politikoan	0.1	-	Prozedimendala Nazionalista	Herrien autodeklarazioa onartzen duen Estaturua Autonomia Erlekuak	Denak alde Denak alde	Denak alde	CIU, Nazionalista ERC, Prozedimendala Nazionalista	
	3. etapa	1980ko autodeklarazioa aldizpena	Demokrazia post-autoritaroaren konsolidazio etapa	11	-	Nazionalista	Autonomia Erlekuak Eskubide nazionalak eguneratzeak aurka	Denak alde	Denak alde	ERC, Nazionalista/Plebizarria CIU, Nazionalista	
	4. etapa	2005. 2006ko Estaturua	Demokrazia osoa	28	8.34	Nazi onaketa/plebizarria Plebizarria	Autonomia Erlekuak Estatu auziraketa aurka 2006ko aurka	CIU, AId, ERC	ERC, Auziraketa aurka	Nazionalista/Plebizarria	
	5. etapa	Sobarenilla Altxapena	Demokrazia osoa	35	8.02	Plebizarria	Sobarenilla (Espainiarrekin)	AId, CIUPen boto banaketa (in)	Plebizarria	Plebizarria	

2. eranskina.

8. taula. Bigarren ondorioa (laburpena).

	Sistema politikoak			Sesioetako biloba		
	Astirakiko dokumentuak	Sistemaren definizioak /Inferentziak	Democracy Index	Eratarazi/aldizkariak /berriekin hartutako lurraldeak	Eratarazi/aldizkariak /beste lurraldeetako definitutako harenak	Aldizkariak /aldizkarietako /lurraldeak
Euskal Herria	1. etapa	Transizioa eraginmen autoritaristatik demokratizazio politikoak	8	Hego Euskal Herria	Beste lurraldeak sartuko zutiera	EAI, Euskal Herria (Nafarroako garraioa), ANV, Euskal Herria
	2. etapa	Lanemenduen amendotzea	0 1	Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoa	Alquifit ez	Euskal Herria
	3. etapa	Gomikalko Erabarrak		Autoritaristako odostin horri	Alquifit ez	EAI, Euskal Herria (Nafarroako garraioa), EE, Euskal Herria
	4. etapa	Demokratizazioa post-autoritaristaren konsolidazio etapa	11	Hego Euskal Herria	Nafarroa eta beste lurraldeak sartuko zutiera	Euskal Herria (Nafarroako garraioa)
	5. etapa	Demokratizazio osoa	28	"Pueblo Vasco"	"Pueblo Vasco"	EAI, EA, Euskal Herria (Berezizko garraioa), EE, BAE, HB, Euskal Herria
Katalunia	1. etapa	Libreteratze plana	35	Euskal Herria (hiru eremuen onarpen egiaztatua)	Nafarroa eta Iparraldearen loturak + sartuko zutiera	EAI, EA, Euskal Herria (hiru eremuen onarpena), SA, Euskal Herria
	2. etapa	Euskal Bider	8,02	-	Prozesu konstituziogileak	Euskal Herria (hiru eremuen onarpena)
	3. etapa	EAIren proposamena		-	Haren ondoren eturria	
	4. etapa	1978ko auziragokidetasunaren aurkezpeneak	8	Nazionalista	Beste lurraldeak sartuko zutiera	Principat
	5. etapa	1978ko Erabarrak		Alquifit ez	Alquifit ez	Principat
Katalunia	1. etapa	Lanemenduen amendotzea	0 1	Pradimentarista	Alquifit ez	Principat
	2. etapa	Sosio Erabarrak		Nazionalista	Lurraldeen kolaborazioa	Principat
	3. etapa	1978ko autodeterminazio ofizialaren etapa	11	Nazionalista	Alquifit ez	Principat
	4. etapa	2005-2006ko Erabarrak	28	Nazionalistatik/plebizariora	Loturak haren ondoren herritarrekin + kanpoko komunitateekin kolaborazioa	Principat
	5. etapa	Sobretarra Altopasoa	35	Pradimentarista	Alquifit ez	Principat

